

Petróleos del Norte S.A., Petronorren akziodunen bilera orokorra

- Konpainiaren emaitza garbia 294,6 milioi eurokoa izan zen 2007an.
- Guztira 10,8 milioi tona baino gehiago saldu ziren, maximo historikoa dena.

Petróleos del Norte, S.A.-ren akziodunen bilera orokorrean, 2007 urteko konpainiaren kontuak onartu ziren, non irabazi garbiak 294,6 milioi eurokoak izan ziren (250,8 milioi euro 2006an). 10,8 milioi tona saldu ziren, guztira, konpainiaren historiako handienak.

Petronorrek 2007an 362,5 milioi euroko irabaziak izan zituen, zergen aurretik, 2006an, ordea, 345,7 milioi. Fintzearen marjinen hobekuntzaren eta salmenta onen ondorioz gehienbat areagotu dira irabaziak.

Akziodunen aurrean, Petronorren presidentea den Pedro Fernández Frialek, 2007an lortutako emaitza onen oinarritzko elementu gisa aipatu zituen, “instalazioen erabilgarritasuna eta erabilera, fintzearen marjinak hobetu izana eta salmentak areagotu izana, nahiz eta AEBetako dolarra euroarekiko ahultzen joan den”.

Fuel-olioa Murrizteko Unitateak eraikitzeke proiektua onartu dela ere nabarmendu zuen (URF), 750 milioi eurotik gorako inbertsioa behar duena.

Bukatzeko, energia berriztagarriei dagokienez, presidentea adierazi zuen “Petronor Biocarburantes, S.A. sozietatea sortuko dutela, urtean 200.000 tona biokarburante sortuko dituen, Bilboko portuan kokatuko dena”. Horretarako 60 milioi euro inguruko inbertsioa beharko dela estimatu da.

<u>EMAITZAK (milioi eurotan)</u>	<u>2007</u>	<u>2006</u>
Esplotazioaren irabaziak	248,7	253,5
Finantza-emaitza positiboak	103,5	69,2
Aparteko Emaitza Positiboak	10,3	23,0
	-----	-----
IRABAZIAK (Sozietateen gaineko zergaren aurretik)	362,5	345,7
Sozietateen gaineko zerga	67,9	94,9
EMAITZA GARBIAK	294,6	250,8

<u>BESTE HAINBAT MAGNITUDE</u>	<u>2007</u>	<u>2006</u>
Prozesua (petrolio milaka tonatan)	10.462	10.419
Salmentak (milaka tonatan)	<u>10.812</u>	<u>10.619</u>
- Nazioko merkatuan	7.310	7.623
- Atzerriko merkatuetan	3.502	2.996
Inbertsioak (milioika eurotan)	101,7	58,0

<u>EGOERAREN BALANTZEA</u>		
<u>(Milioika eurotan)</u>		
	<u>2007</u>	<u>2006</u>
Ibilgetu garbia	360,3	307,7
Izakinak	546,3	482,9
Zordunak	438,6	358,3
Beste hainbat aktibo zirkulatzaille	148,6	120,5
	-----	-----
AKTIBOA, GUZTIRA	1.493,8	1.269,4
Funts berekiak	672,4	638,1
Hainbat urtetan banatzeko probisioak eta diru-sarrerak	29,6	25,5
Hartzekodunak (epe luzean)	0,3	0,4
Hartzekodunak (epe laburrean)	791,5	605,4
	-----	-----
PASIBOA, GUZTIRA	1.493,8	1.269,4

Muskiz, 2008ko ekainaren 23